DONE TOMAS EGUNA

ANTZOKI ZARREAN

ASPALDIKO urtietan baserritarrak maiŝtertzako zorrak kitatzeko agerkera egiten duten egunean Donostira, egazikiroak ekarririk bakallo zarraren trukean, egin du aurten euskal gai onez ornitutakoen aurkestaketa, Uri ontako antzokiyan, Toribio Alzaga jauna'ren zuzendepeko ikasdari taldeak, guztiz bikaiñ ta chalo aundipean.

Oek irudi apaintzak egiten ari ziran garayan, irten ziran Plaza berriko killikupietatik Donostiyako chistularitaldea gidari zutela, Ernani ta Altzazuko soñu jotzalle bikañak, ta sayo-jira ederra egiñik, igaroaz Eskotilla, Apaiz, Esnategi ta Zumardi karrikak, Bilinch'en kanTTTaleko atetik egin zuten oek beren sarrera antzokiko iruditegira, atzetik dantzan jarraitzen ziyotelarik matz mordo ugaritzu baten antzedun gizaseme ta emakume sall aundi batek, ta gelditu ziran chistulariyak beren ekiñ aldiya egiteko chanda zai.

* * *

Arratsaldeko bost'orduak jo beziñ azkar, ekiñ ziyon arrabetari taldeak bere otskintzari guztiro egoki, ta gero agertu ziran iruditegira Artola ta Arrieta damacho gazteak, *Aŝenchi ta Konchešı,* Toribio Alzaga jauna'ren bitazizketaren gai pollitan egokitasunak aurkestatzera, ta aiñ malla goitsuan egin zuten lenengo gayaren sayua, non karrika baztarretan arki ziranak ere, chalozko iŝkamilla barrengua nabaiturik, barrura sartu nayezko zaletasunakin, musu zapiyan korapillo senduak askatuta, chartelak erosi zituzten jai aldi eder ura gerturagotik ikusteko, bosna chakur aundi, beste gabe.

Gero, Euskal itz-jostaldien Batzarrak ere egin nai izan zuben bere irriyakua, Adrian Loyarte jauna buru zubela, chistulariyen gayak neurturik oeri sari emaitzak egiteko; ta mai jiran ikusi genituenak ziran: Karlos Uagon alkate jauna, Ildefonso Lizarriturri, Buenabentura Zapiraiñ, Joakin M. Baroja, errenkada oen egillia (au besteak ikusi zuten) ta Toribio Alzaga, Euskal itz-jostaldien Batzarrea'ren goarpelari jauna.

Oek beren aulki berezietan ezeri ondoren, Loyarte jauna'ren aginduz Alzazu'ko chistulariyak eman ziyoten arratsalde artako gai neurketari asiyera, ta guztiz egoki osatu zituzten beren eginkisunetako chandak ezkeñi ziyozkaten gayak.

Oek beren ekiñ aldiya egin ondoren, agertu ziran iruditegian Ernani'ko chistulariyak, ta lendik oi duten bezela, yayotasun aundiz egin zuten eman zitzaizkaten gai guztiyen epaitzak guztiz garbiro, pirripiyuak baño berriketa geyagorekiñ, ta ikusirik aiñ garbi Batzarrea'k nork egin zuben sayorik onena, ikusdari edo aditzalle guztiyen chalo otspean, eman zuben lenengo sariya Ernani'ko chistulari taldearentzat, eta bigarrena Alzazuko'arentzat, oarturik lenengoari, onez aurrerako gai neurketetan eziñ egingo zubela sayo berririk, iru sariren jabe egiñik arki zalako.

Gai oni jarraitu ziyon Gregorio Beorlegi'k, bakarrizket Mikelacho Joze Ganboa'ri saritutakoakin; ta nola aurkestatu zuben esan bearrik ez dago, jakiñik dakigun bezela zenbaterañoko yayua dan Beorlegi, Tolosa'ko Euskal jayetan *Ero algara*'kiñ lenengo sariya irabazi zuben ezkeroztik.

Onek ez diyo antzoki lanetan ezeri zailkeririk arkitzen; lan guztiyak onentzak erresak dira, ta bere burua guchitzat egiñ arren ere guztiyak aundi ikusten deguna da, ala euskeraz, nola erderaz. Zerbaitegatik esan oi degu onegatik, eta arrazoi aundiz, erderaz izketan ari geranian: *Beorlegui es el gran artista bilingüe, e inimitable monologuista.*

¡Ai, esan albaneza onegatik Pepe Artola'gatik Semana Euskara'n Manuel Mujika zanak esan zubena!:

Es escritor, es artista
y un sin par monologuista,
en las presentes edades
ha sido la gran conquista,
para nuestras Sociedades.

¿Orrenbeste koipe geyegi ote da? Oni guztiya ematen badiyot ¿zer geldituko zait bestientzat? Ez bedi oliyontziya geyegi irauli zartagi

ontara, *dontzellak* ere zerbait bearko dute ta; gañera Euskal itz-jostaldien Batzarra ere zerbaiten zai egon liteke bere dianagusi Adrian Loyarte jauna'rekin; bada Batzar onek, tipula chetuak ipiñiyak dauzka ontzi eder batean, ta oliyo gabe utziko banuke, betirako zapuztuko litzakiela uste det; au da, aspaldiko urtietan sari emaldi onak egiten dituena, ta aurten ere betiko oiturari jarraituaz, ta erri batzarraren laguntzakin, eman ditu sari atsegingarriyak Toribio Alzaga jauna'k eresien irakurtza egiñ ondoren.

Gero zerbaitekin eman bear arratsaldeko jai aldiyari bukaera, ta Alzaga maisuak ipiñi zuen ikusdariyen chalogaitzat, Abelino Barriola jauna'ren jostirudi pollit *Gai dagonaren indarra,* ikastecheko ikasdari gazte, Bitorina Artola, Bitori Arrieta, A. Echeberria, Mendiburu ta Egilegor'en gai neurgaitzat; ta aiñ egoki egin zuten oek beren ekintza, non oraindik ere orduko chaloen burrundara daukatan belarriyetan, beatzakin kalkatu arren, ezin paketurik.

Azkenik, bertsolariyak eŝeri ziran bakoitzairi eman zitzaizten aulkiyetan, ta aldarte guztiz aularekin egin zuten oek beren sayua. ¡Zer egingo da! Orain guazen arratseko jai aldiyarenbilla.

* * *

Arratseko bederatziyetan eman zitzaiyon bigarren ekiñ aldiyari asiyera, arrabetariyen oskintzarekin, ta bereala alcha zuten ezkutapiya, Joŝe Elizondo'ri aurtengo gai neurketan saritu zayon abalizket *Dollorra* ikusdariyen ezagungarritzat jarri zediñ; ta nik esanaren zai egon bearrik ez dago zenbaterañoko gai aundiyak dauzkan egintza guztiz eder onek, zergatik antzokiratu ziran guztiyen abotik, etzan besterik aditzen:¡Ori da lan ederra gaur, gaur bezela, ipiñi dutena gure begiyen aurrean Arrieta ta Aramendi andere gazteak; Egilegor, Beorlegi, Mendiburu, Arozamena, Echeberria, Arostegi ta beste bi ezagutzen ez ditutanak, beren izenez beintzat!

Guztiz ekin aldi nekosua izan zan oentzat, bañan alaz guztiyaz ere, *Vico* zanaren lagundiyak beziñ errezki menderatu zituzten eginkisun denak, bakoitzak bere gayak goikiro osaturik; ta Elizondo egon arren (zerbait gaizki egin bazukien bezela) baztar batian kuŝkurturik, iñork ikusi etzezan, alcha bear izan zuben zeguen lekutik ikusdariyen aurrera ager zediñ, langille gazte oyekin bat chalo soñuak adi zitzan. Uste nuben ikusdariyak eskurik gabe geldituko zirala arrats artan, ta etzan guchiyagotako ere.

¿Iñor ote da chiñiſtuko dubenik, esku bakarreko gizaseme bat ikusi nubela karraſika, taiſtarran gaña joaz esku bakarrakin, chalorik eziñ egin zubelako? ¡Urrengo egunean aren iſterra minberatua egongo zan bai, iñolaz ere!

¿Neskame edo mirabe eder'en batek ipiñi ote zuen, azkenik ikusi genduen mai bitarteko goſo ura? Au galde iñozua egiten didazu. ¿Ez dezu ikusten antzoki mayetako neskamerik onena baño morroi obea badegula? ¿Ez dakizu Toribio Alzaga maisu yayuak, ez dakiyela «Bernaiño'ren larriyak» zertatik datozen? Ta gañera ¿ez aldaki norganatu orlako jaki goſuak? Or dauzka bere zuzendepeko ardatz mendean, Biſori Arrieta, Biſorina Artola ta Aramendi mirabe pizkor bikañak; Arozamena, Beorlegi, Arostegi ta Echeberria, galai gazte ta ekindari yayuak.

Oekin noranaira balijuake Alzaga, non nai iyoko dute goi malletara; bazkari batera eramaten baditu ere, ez dute oek utziko lotzetan edozeiñ ostalariren aurrian, ta nere bearrian arkituko balirake noizpait, deitu, ta joango naiz bazkaldar ona naiz ta, ortzez guchitua izan arren. Besterik ezpada ere aya jango det.

Ez daukat gai aundirik bertsolariyen sayua'ri chalo jotzeko, beti bezela oek bukatu zuten, bañan arratsaldean beziñ aulkeri aundiz. Beste ekiñ aldi batean ariko dira agiyan obetoago. *Mañana mejor, comeriante.*

JUAN IGNACIO URANGA